# Araba Bizirik en el festival Alta felicitá, una cita anual con la resistencia contra el TAV

ARABA BIZIRIK :: 08/08/2022

Desde el año 2016 se celebra en el pueblo de Venaus (Italia) un gran festival popular contra las obras del TAV que pretendían atravesar el Valle de Susa.

ARABA BIZIRIK EN EL FESTIVAL *ALTA FELICITÁ,* UNA CITA ANUAL CON LA RESISTENCIA CONTRA EL TAV EN VAL DE SUSA (ITALIA)

Desde el año 2016 se celebra en el pueblo de Venaus un gran festival popular contra las obras del TAV que pretendían atravesar el Valle de Susa.

Este pequeño valle se encuentra casi en la frontera con Francia y en el 2005 se dieron graves enfrentamientos cuando la policía se dispuso a desalojar los terrenos ocupados donde se iniciarían las obras del túnel de exploración.

Finalmente, y tras una brutal represión por parte de la policía, vecinas, vecinos y agricultores del valle, movimientos ambientalistas, comunistas y anarquistas y asociaciones católicas evitaron el desalojo. A partir de ese momento, el pueblo de Venaus adquirió un gran valor simbólico para el movimiento NO TAV porque se consiguió paralizar la obra. Esta es la razón por la que se celebra anualmente en este lugar y desde el 2016, el festival Alta Felicità cada último fin de semana de julio.

El festival se organiza con la participación voluntaria del valle, las asociaciones populares organizadas contra este macroproyecto y de la casa social ASKATASUNA de Turín. Las características principales de este festival autogestinado son: el respeto hacia el entorno natural, la participación popular y convertirse en un punto de información sobre el proyecto del tren de alta velocidad entre Lyon y Turín.

Este festival es una iniciativa que sirve para dar a conocer a cuantos se acercan, la evolución del proyecto, así como la resistencia popular que se le ofrece. Cuentan con un gran apoyo no sólo en el Valle sino que también a nivel de toda Italia o también a nivel europeo como hemos podido comprobar los miembros de Araba Bizirik que hemos venido.

Durante el fin de semana se organizan diversas actividades: charlas de divulgación de diferentes luchas contra grandes infraestructuras, debates en torno a la crisis estructural socio ecológica del actual sistema capitalista, así como presentaciones de libros y exposiciones. Al final de cada jornada se ofrecen varios conciertos donde los grupos apoyan la iniciativa con su música de forma voluntaria y gratuita.

ARABA BIZIRIK ha participado activamente en esta edición. Nos hemos reunido con diversos colectivos NO TAV y labradores, que de primera mano nos han dado a conocer la situación actual de la lucha que se prolonga más de 30 años.

El sábado 30 tuvo lugar la multitudinaria manifestación anual que parte desde el mismo

recinto del Festival hacia el proyecto de autopuerto de San Didiero (polígono para la transferencia de mercancias de los camiones al ferrocarril), ocupado por la policía desde el 2021. En el transcurso de la manifestación pudimos comprobar el nivel de implicación de la población local, así como el nivel de sensibilización contra este devastador proyecto.

Por último, realizamos dos visitas a explotaciones agrarias integradas en el interior de la zona afectada por las obras y pudimos observar el nivel control policial que en torno a ellas existe. Es enorme el esfuerzo y la implicación diaria de las agricultoras y los agricultores por la defensa de su territorio, así como la gran red autogestionada de apoyo mutuo creada entorno a ellas y a ellos. Modelo, que entendemos, a seguir para la lucha necesaria frente al expolio que amenaza nuestro entorno.

Esta experiencia nos ha servido para comprobar que las agresiones al territorio no entienden de fronteras y que los macroproyectos no son sino una excusa para captar fondos públicos (bien en Susa, en Euskal Herrian o en en el mundo entero) y que la respuesta popular y organizada es la única vía para detener esta estafa.

ARABA BIZIRIK, AHT-AREN AURKAKO ERRESISTENTZIAREKIN BAT, URTEROKO ALTA FELICITÁ JAIALDIAN, VAL DE SUSAN (ITALIA)

urteaz geroztik, Venaus herrian, hasiera batean Susako harana zeharkatuko zuen AHTaren obren aurkako "Alta Feslizita" jaialdi herrikoi erraldoia egiten da.

Frantziako mugatik gertu dagoen haran txiki honetan, 2005. urtean liskar larriak bizi izan ziren polizia okupatutako lurrak hustutzera joan zenean, hasiera bateko esplorazio-tunelaren obrak hasi behar ziren eremuan hain zuzen.

Azkenik, poliziaren errepresio bortitzaren aurrean, han elkartu ziren ibarreko bizilagunek eta nekazariek, ingurumenaren aldeko mugimenduek, komunistek, anarkistek eta elkarte katolikoek, lurrak uztea saihestu zuten. Une horretatik aurrera, Venaus herriak, balio sinboliko handia hartu zuen AHTrik EZ mugimenduarentzat, obra geldiaraztea lortu bait zelako. Garaipen honengatik hain zuzen ere, 2016-az geroztik eta urtez-urte, Alta Felicità festibala ospatzen da uztaileko azken asteburuan.

Alta Felicità, bailarako jendearen borondatezko partaidetzarekin, makroproiektu honen aurka antolatutako herri mugimendu ezberdinekin, eta Turin-eko ASKATASUNA etxe sozialarekin batera antolatzen da. Autogestionatua den jaialdi honen ezaugarri nagusienak honako hauek dira: ingurumenarekiko errespetua, lurraren defentsa, herri-partaidetza eta Lyon eta Turin arteko abiadura handiko trenaren proiektuari buruzko informazio-gune bihurtzea.

Hurbiltzen direnei, proiektuaren bilakaera eta eskaintzen zaien erresistentzia ezagutarazteko balio duen ekimena da jaialdi hau. Bertaratu ahal izan garen Araba Bizirik-eko kideok egiaztatu ahal izan dugun bezala, NO TAV mugimenduak babes anitza eta zabala dauka, inguruko haranetan, Italia osoan eta baita Europa mailan ere.

Asteburuan zehar hainbat jarduera antolatzen dira: azpiegitura handien aurkako borrokak zabaltzeko hitzaldiak, egungo sistema kapitalistaren egiturazko krisi sozioekologikoaren

inguruko eztabaidak, liburuen aurkezpenak eta erakusketak. Egun bakoitzaren amaieran, hainbat kontzertu ematen dira, non musika taldeek beraien borondatez eta doan babesten duten ekimena.

Araba BIZIRIKek modu aktiboan parte hartu du edizio honetan. AHTrik EZ mugimenduaren barruko kolektibo ezberdinekin eta haraneko nekazariekin bildu gara. Honela, 30 urte baino gehiago irauten duen borrokaren egungo egoeraren berri eman digute bertatik bertara.

Larunbatean, uztailaren 30ean, urtero egiten den eta oso jendetsua izan zen manifestazio jendetsua burutu zen Jaialdiaren esparrutik bertatik abiatuta, poliziak 2021az geroztik okupatua duen San Didieroko autoportuaren proiektura (kamioietatik trenbidera salgaiak transferitzeko poligonoa). Manifestazioan bertan, tokiko herritarren inplikazio-maila izugarria egiaztatu ahal izan genuen, bai eta proiektu suntsitzaile horren aurkako sentsibilizazio-maila ere.

Azkenik aipatu, bi bisita egin genituela AHTaren obren eremuaren barruan dauden nekazaritza-ustiategietara, eta haien inguruan bizi duten polizia-kontrola ikusi ahal izan genuen. Bertako nekazariek beraien lurraldea defendatzeko egunero egiten duten ahalegin eta inplikazio maila izugarria da, baita haien inguruan elkarri laguntzeko sortutako sare autogestionatua ere. Berau, gure ingurunea mehatxatzen duen espoliazioaren aurkako beharrezko borrokarako, eredugarria ikusten dugu.

Amaitzeko, bizipen honek, honakoa egiaztatzeko balio izan digu: lurraldearen eta ingurumenaren aurkako erasoek ez dutela mugetaz ulertzen, makroproiektuak diru publikoa erakartzeko aitzakia baino ez direla (bai Susan, bai Euskal Herrian eta baita mundu osoan ere), eta herri-erantzuna eta erantzun antolatua direla iruzur horiek geldiarazteko bide bakarra.

---

Como hace dos años, miembros del movimiento contra el TAV y de Araba Bizirik, a los que sé han unido integrantes de Sukar Horia, hemos venido a Val di Susa. El valle de Susa está situado en los Alpes italianos y lleva tres décadas luchando contra una línea de TAV que quieren construir para unir las ciudades de Turín y Lyon. En la actualidad, el presupuesto de este proyecto asciende a 26.000 millones de euros, se prevé que tenga una longitud de 270 km. y atravesaría los Alpes a través de un túnel de 57,5 km.

A principios de los años 90, los habitantes del valle y de la cercana ciudad de Turín se organizaron en torno al movimiento NO TAV para mostrar su oposición por los perjuicios que supondría ese proyecto. Estos se recogen en un extenso documento elaborado por la asociación Pro Natura Torino con 150 razones para oponerse a esta infraestructura. Este informe enumera los impactos sobre el medio ambiente, sobre la salud de las personas, económicos y sociales, y desmonta la idea del progreso que nos venden con el TAV. Además, hay que tener en cuenta que actualmente ya está en funcionamiento una red ferroviaria entre Turín y Lyon que transporta tanto personas como mercancías.

Unas de las principales formas de lucha del movimiento, ha sido la ocupacion de terrenos donde sé proyectan las obras del TAV. Una de estas ocupaciones a las que en el valle les

llaman "presidios", es la de Venaus, donde querían construir el primer tunel geognóstico en el año 2005 y que fue violentamente desalojada por la policia. 2 días después fue recuperada en una gran manifestacion de más de 30 mil personas. Después de esto, el govierno decidió cambiar el proyecto del tunel a una zona mucho más inaccesible cerca del pueblo de Chiomonte.

Cuando iban a empezar la perforacion del tunel de Chiomonte, en Mayo del 2011, el movimiento NO TAV ocupo la nueva zona de obras, denominandola "libre republica de la Madalena" en recuerdo a la segunda guerra mundial cuando los partisanos recuperaban los territorios de los nazis. Esta ocupacion duró 2 meses hasta que se produjo un muy violento desalojo por parte de 2500 policias, donde, entre otras cosas, arrojaron más de 2000 botes de humo, muchas veces apuntando a las personas, produciendo heridos graves.

En respuesta a lo sucedido, los comités NO TAV organizaron una nueva manifestación de protesta el 3 de julio, también en Chiomonte, en la cual participaron cerca de 60.000 personas entre ellas numerosos alcaldes de municipios del Valle. Ese mismo día, sé volvió a ocupar el campamento, produciéndose nuevamente fuertes disturbios. Se contabilizaron más de 200 heridos y 5 personas fueron arrestadas. Con todo ello, los manifestantes no lograron su objetivo y la Policía mantuvo el control del campamento y alrededores.

A partir de entoces, procedieron a militarizar la zona con vallas, concertinas, cámaras de vigilancia y potentes focos que están encendidos toda la noche para proteger la unica obra que se ha llevado adelante en todo el valle. Esta obra consiste en un tunel geognóstico de 7 km que sirve para conocer la composicion de la roca, para poder llevar a cabo el tunel principal de 57km.

Con esta obra se ha podido comprobar que la montaña contiene grandes cantidades de amianto y uranio. Esto ha afectado ya a los trabajadores que han perforado el tunel y a los habitantes del valle, ya que desde las zonas de vertido de los materiales extraidos del tunel se generan nubes de polvo con estas sustancias cancerigenas.

El año pasado, aprovechando las restricciones del covid, la policia ocupó una segunda zona en el pueblo de San Didero, con la escusa de construir un polígono para aparcar camiones y transferir las mercancías al TAV. Se trata de un terreno de 68.000 m2 donde han construido un "fuerte" de hormigon, vallas y alambre de espino, donde antes habia 5 hectareas de arboles. Hasta el momento no han hecho ninguna obra pero han gastado ya más de 5 millones de euros en la construccion del fuerte y en su vigilancia. Durante el festival de Alta Felicita de este año sé realizo una gran marcha a esta zona militarizada.

Con todo ello, hemos visto que éste es un proyecto para trasvasar miles de millones de dinero público a manos privadas, con graves efectos para el valle y hemos podido comprobar cómo, en estas 3 décadas de lucha, el movimiento NO TAV ha conseguido que solamente se haya construido un tunel que únicamente vale para conocer la composición de la roca, para poder construir el tunel principal de 57 km proyectado.

---------------------

Duela bi urte bezala, AHTaren aurkako mugimenduko eta Araba Bizirik-eko kideak, Sukar

Horia taldeko kideekin batera, Val di Susara etorri gara. Susako harana Italiako Alpeetan dago, eta hiru hamarkada daramatza borrokan, Turin eta Lyon hiriak lotzeko, eraiki nahi duten AHT linea baten aurka. Gaur egun, proiektu honen aurrekontua 26.000 milioi eurokoa da, 270 km-ko luzera izatea aurreikusten da eta 57,5 km-ko tunel baten bidez zeharkatuko lituzke Alpeak.

90eko hamarkadaren hasieran, bailarako eta gertuko Turin hiriko biztanleak NO TAV mugimenduaren inguruan antolatu ziren, proiektu horrek ekarriko zituen kalteen aurka agertzeko. Horiek guztiak Natura Torinoren Aldeko Elkarteak egindako dokumentu luze batean jasotzen dira, azpiegitura hori ez egiteko 150 arrazoirekin. Txosten honek ingurumenean, pertsonen osasunean, ekonomian eta gizartean izango lituzkeen inpaktuak zerrendatzen ditu, eta AHTarekin saltzen diguten aurrerapenaren ideia desmuntatzen du. Gainera, kontuan izan behar da Turin eta Lyon arteko trenbide-sare bat martxan dagoela, pertsonak eta merkantziak garraiatzen dituena.

Mugimenduaren borroka-modu nagusietako bat AHTaren obrak proiektatzen dituzten lurrak okupatzea izan da. Zeregin horietako bat Venausekoa da, eta haranean bertan eraiki nahi zuten lehen tunel geognostikoa 2005ean, poliziak indarrez hustu zuena. 2 egun geroago, 30 mila pertsona baino gehiagoko manifestazio handi batean berreskuratu zuten. Horren ondoren, gobernuak tunelaren proiektua aldatzea erabaki zuen, Chiomonte herritik hurbilago dagoen eremu isolatu batera.

Chiomonteko tunela zulatzen hasi behar zutenean, 2011ko maiatzean, NO TAV mugimenduak, obren eremu berria hartu zuen eta "Madalenaren errepublika askea" izendatu zuten, partisanoek nazien lurraldeak berreskuratzen zituztenean bezala. Okupazio horrek 2 hilabete iraun zuen, harik eta 2.500 poliziak oso bortizki hustu zuten arte; besteak beste, 2.000 ke-pote baino gehiago bota zituzten, askotan pertsonak apuntatuz, eta zauritu larriak eragin zituzten.

Gertatutakoari erantzuteko, AHTren Aurkako Batzordeek beste protesta manifestazio bat antolatu zuten uztailaren 3an Chiomonten, eta 60.000 lagun inguruk parte hartu zuten, horien artean Haraneko udalerrietako alkate asko. Egun horretan bertan, kanpamentua hartu zuen berriro eta istilu handiak sortu ziren. 200 zauritu baino gehiago zenbatu ziren eta 5 pertsona atxilotu zituzten. Horrekin guztiarekin, manifestariek ez zuten helburua lortu eta poliziak kanpalekua eta inguruak kontrolatu zituen.

Handik aurrera, ingurua militarizatu zuten hesiak, kontzertinak, segurtasun kamerak eta argi foku indartsuekin, gau osoan piztuta daudenak, bailara osoan aurrera eraman duten obra bakarra babesteko. Obra hau 7 km-ko tunel geognostiko bat da, 57km-ko tunel nagusia egin ahal izateko harkaitzaren konposizioa ezagutzeko bakarrik balio duena.

Lan honekin frogatu ahal izan dute mendiak amianto eta uranio kantitate handiak dituela. Horrek eragina izan du dagoeneko tunela zulatu duten langileengan eta bailarako biztanleengan; izan ere, tuneletik ateratako materialek hauts-hodeiak sortzen dituzte substantzia kantzerigeno horiekin.

Iaz, covid-aren murrizketak aprobetxatuz, poliziak bigarren eremu bat okupatu zuen San Didero herrian, kamioiak aparkatzeko eta salgaiak AHTra transferitzeko poligono bat

eraikitzeko aitzakiarekin. 68.000 m2-ko lursaila da eta bertan hormigoizko gotorleku bat, hesiak eta alanbreak jarri dituzte, lehen 5 hektarea zuhaitz zituen lekuan. Orain arte ez dute obrarik egin, baina 5 milioi euro baino gehiago gastatu dituzte gotorlekua eraikitzeko eta zaintzeko. Alta Felicitako aurtengo jaialdian martxa handi bat egin da gune militarizatu honetara.

Guzti horrekin, ikusi ahal izan dugu, proiektu hau diru publikotik milaka milioi euro esku pribatuetara bideratzeko proiektua dela, haranarentzat ondorio larriak dituena. Gainera, NO TAV mugimenduari esker, soilik harkaitzaren osaera ezagutzeko balio duen tunel bat eraikitzea lortu dute, proiektatutako 57 km-ko tunel nagusia eraiki ahal izateko.

---

*https://eh.lahaine.org/araba-bizirik-en-el-festivalnalta*